

AZTEKARRAK ETA JUDUAK

Edu Zabala


Bi herri hauen artean, denboran eta espazioan hain urrun egonik, badira azaleko edo beharbada sakonagoak diren antzekotasunak, eta ezberdintasunak alde batera utziz (ugari dira hauek ere) beraiek egindako bidaia handiaren eta exodoaren arteko paralelismoak aztertuko ditugu...

AZTEKARRAK

Herri honen hiririk garrantzitsuenak, 1320. urtean eraiki zuten: Tenotxitlan, egungo Mexiko sakaneko garrantzitsuenak zelarrik. Tenotxitlan hirira iristeko, Aztekarrak 300 bat urteren buruan Kolorado ibaia dagoen lurraldeetatik, poliki poliki hegoalderantz mugitu omen ziren, gaur egungo Mexiko hiriburualdean dagoen aintziraraino iritsi arte. Bidaia honetan aztekar Herriaren arbasoek (toltekar, olmekar, zapotekarrek) beste herri batzuk eraiki zituzten funtzio ezberdinekin, hots: TULA (herri administratiboa) eta MITLA (heriotzaren herria). Azteka hitzak zera esan nahi du: “Aurpegi ezezaguneko jendea”. Nomada eta mertzenari bezala bizi ziren, Mexiko sakaneko beste herri “zibilizatuek” barbarotzat kontsideratzen zituztelarik. 1500. urterako, inguruko boteretsuenak ziren eta beste herrien kul-

tura, sinesmen eta egitura sozialak menperatuak eta bereganatuak zituzten. Moktezumarekin, errege filosofoarekin, lortu zuten beren kulturaren gailurra eta espainiarrak iristean etorriko zen hondamena. Zer dela eta aztekarren arbasoek utzi behar zituzten Kolorado ibaiaren inguruko lurralde aberats eta emankorrak, basamortu batean zehar hainbeste urtetan ibiliz? Beraien mitologiak ematen dizkigu argibide batzuk.

ISRAEL-ek, Yahve-k aukeratutako herri Santuak, egindako EXODO-aren mugak.



* Marrazki eta testu hauek liburu honetatik hartu dira: UZEI. *Gizadiaren Historia Mendez Mendeko*. 1985.

JUDUAK/ISRAELDARRAK

Herri honen historia, seguraski ezagunagoa dugu eta dirudienez, Jakob-en semeen garaian, hau da, K.a. 1700. urtean, HIKSOS herriak bere migrazioan bereganatu zuen garai hartako Egipto, hauekin batera, Judu-Herria ere laguntzaile gisa finkatzen delarik. 600 urte bizi izan ziren han, eta Egiptoko herriak hiksostarrak bidaltzea lortu zuenean, juduak ez ziren joan haiekin. Baina egiptiarrek begikoa zieten eta horregatik lan eskerga eta astunak egin behar izan zituzten Ramses-en eraikuntza erraldoietan. Moise-rekin batera etorri zen Herri honen askatasuna eta Itsas Gorria zeharkatuz, Transjordania-raino iritsi ziren, beraien Jainko Yahve-k eskainitako Kanaa-ko lurraldera. Teoria batzuek diotenez, Neolitos Garaia hasterakoan han bizi izan ziren juduak, arraza semitarren adar bat zirelarik, eta Aro berri honetan izan ziren lehorte izugarriak medio, beste Herri batzuekin batera migrazioari ekin zioten. Hegoalderantz, hau da: Egiptora. Beraz, 1000 urteren buruan, joan-etorriko bidaia egin zuten.

Juduak nomadak ziren, aztekarrek bezala, baina ez mertzenariak. Historian beti aurkitzen ditugu beste Herri nagusiago baten bizitzari lotuta. Nazio bezala, Kanaa-n finkatu ondoren loraldi bat ezagutu zuten Salomon erregearen agindupean, baina, beste arazo batzuen artean erromatarrak etorri zirelako maldan behera eroriko zen. Herri hau, beti

egon zen, eta dago, etengabeko burrukan bere inguruko leinukoekin (kananeo, filisteo, etab.ekin).

BIDAIA HANDIA

Nahiz eta aztekar Herriaren erlijioak jainko ezberdinak izan (Keatzalkoatl, Heriotz-ispilua, Sumendietakoa, etab.), garrantzitsuena, eta bidaia hau adierazteko erabiliko duten jainko bakarra, Eguzkiarena eta Gerrarena da: HUITZILOPTXTLI.

Jainko hau txori baten bidez mintzatu zitzairen aztekarren arbasoei Kolorado-ko lurraldeetatik alde egiteko esanez. Arrazoa dirudienez zera zen: etsaiak gero eta gertuago zituztela; beste leinu migratzaile boteretsuagoren bat seguraski. Nora joan behar zuten? Aintzira baten urek bainatzen zuten haitz batera, zeinean kaktus eta arrano handi bat egongo zen hegoak zabalik eta suge bat ere bai bere hanketan. Hau da egungo Mexikoren armaria. Horretarako, 2.100 km egin zituzten 300 bat urteren buruan.

EXODOA

Biblia Santuak arrazoi erlijioso bat agertzen du Bidaia honi hasiera emateko. Yahve jainkoak, Herri honek Egiptoren azpian zuen sufri-mendua ikusiz, herri Santutzat AUKERATU zuen eta lurralde oparo bat eskaini zion, bitartean frogapiloa pasarazi ziolarik.



SAKRIFIZIOAK:
Aztekek beren Jainko Eguzkiari pertsonen bihotz eta odola eskaintzen zioten.



KEATZALKOATL, suge Lumadunaren imajina.

Beheko aldean, HUITZILOPTXTLI-ren imajina, guda-danbor batetik kopiatua.

Egyptiarren historian badira, hala ere, beste datu batzuk. Adibidez, Juduek seme-alaba asko zituztela aipatzen dute eta emagin egyptiarrei jaiotako seme judu guztiak hiltzea “gomendatzen” zieten; alabak aldiz, ez. Dirudienez, bazegoen halako alarma bat demografiaren aldetik. Juduen hazkuntza nabaria zelako eta hura izan zitekeen nolabaiteko arriskua Egyptoko herriarentzat egunen batean. (Gaur egun beraiek arazo berbera dute palestinoekin). Biblia Santuan, NUMEROS 26,2, atalean 12 leinuak zenbatzerakoan, 601.730 direla diote hogeitertetik gorakoak eta gerrarako balio dutenak. Zenbaki hauek nahikoa adierazgarriak dira. Hala ere, datu hauek guztiz benetakoak direla ezin da onartu, zeren bestela edozein zibilizazioko armadarik nagusienetarikoa zela onartu beharko bait litzateke. (Konparazioa eginez, Alexandro Haundiaren armadak 40.000 oinezko eta 7.000 zaldun zituen).

PARALELISMOAK

1. Bi herri hauek arrazoi ezberdengatik, BIDAIA eta EXODO bati ekin zioten. Beraien Jainkoak mundu guztiko Herrien artean HERRI AUKERATUA direla esaten die, bere IZENA eta INDARRA erakus dezaten. Aztekarrei:
Hemendik lurraren bazter guztiak



INDIARREN ARTEKO GERRAK. Ertamerikan herri asko bildu ziren elkarren ondoan. Mendek zehar, gainera, iparraldetiko etorkinak ere sartu ziren, jende-uholde ezberdinetan. Elkarren etsai gertatu ziren, ba, sarritan hango herriak. Hona kodize batetik hartutako marrazki hau: Bi hiriren (Tlatelolco eta Cuauhtinchan) arteko gerramoldeak erakutsi nahi ditu.




GERLARI AZTEKAK. Azteka orok joan behar zuen soldadu, larrialdietan, nekazariak nahiz artisaauak. Apezek berek ere maiz hartzen zituzten armak.

2. Biek badute beren gidaria. Juduek, MOISE eta aztekarrek TEKPALTZIN. Honek esango die une orotan zer egin behar duten eta Jainkoaren ordezkoa izango da bere Herriaren aurrean eta beste edozein Herriren aurrean.
3. Yahve-k Sinai mendian etengabe erretzen ari den lar baten bitartez Moiseri hitz egiten dio. Huitziloptxli-k, txori baten aho-

tik kantatzen du eta Tekpaltzinek interpretatzen du haren kantua aztekar Herriarentzat.

4. Yahve, Juduen begietara egunez laino baten itxuraz eta gaeuz suzko laino bezala agertzen da. Huitziloptxli-k arrano zuri baten itxura hartzen du bere herria gidatzeko.
5. Juduek Bilkura-Denda bat erakitzen dute Yahve-rekin mintzatzeko. Moise Yahve-rekin hitz egitera bertara joaten zenean, hodeia jaisten eta gelditzen zen sarrreran, eta Yahve-k Moiserekin hitz egiten zuen. (Exodo 33,3). Aztekarrek: Ikusten nauzuenean bakarrik ibili, eta nere distira itzaltzen denean, atsedean hartu. Hori izango da nere seinalea, eta han eraikiko duzue ene tenplua.
6. Yahve-k etengabe frogatzen du bere Herriaren borondatea, mirarien bidez lagunduz. Aztekarren mitologian froga bat bakarrik agertzen da: Jainkoak bere zazpi leinuei bi zaku eskaini zizkien: bat egurrez beterik dago, bestea harri bitxiz. Egurra aukuratzen duten leinuak izango dira azkarrenak, zeren zaku horretako egurrak dendak eraikitzeko, azkonak egiteko, sua pizteko eta abarretarako balio du. Beraz, leinu hauek izango dira Jainkoaren mesedea jasoko dutenak, eta froga hau egin ondoren hasierako zazpi leinuak sakabanatu egin ziren.
7. Aztekarrek beren mitologian TULA hirian gelditu zirela diote eta gustora zeuden, baina hura ez

TENOCHTITLAN/MEXIKO. Azteken hiriburua Tenochtitlan/Mexiko zen. XVI. mendeko marrazkia da.



zen beraien Jainkoak eskainitako lurra, eta berriro ekin behar izan zioten beren bidaiari.

Juduek ere izan zituzten atsedenaldi luze edo laburragoak Jordan ibaira iritsi arte, hala nola HOREB mendian eta KADES herrian, baina ez ziren luzarorako geratu han.

8. Yahve Jainko gudazale eta krudela zen. Moisek Itsas Gorriko garaipena lortu ondoren honela kantatzen dio Yahve-ri:

Yahve, gudari indartsua da; Yahve da bere izena.

Faraoiaren gurdiak eta bere armada itxasoan hondatu zituen.

... zure besoa Yahve, gloriosoa da indarrean;

zure besoarekin, Yahve, lurrera doa etsaia (Exodo 15, 3-7).

Egypton bizi zen bitartean, badi-rudi herri geldikor eta baketsua zela, baina Exodoa aurrera zihoan heinean, Moisek bere Herria “militarki” antolatu zuen “zenturia eta milizia”ren sistema erabiliz. Horregatik, nahiz eta israeldarren garaipenak Inperioen artekoak bezain entzutetsuak izan ez, bere indar eta trebezia militarrak kontutan hartzekoak ziren. Biblian aipatzen denez, 60ren bat herri edo hiri irabazi edo menperatu zituzten. Yahve-k israeldarrei, aurkitzen zituzten herri idolatra guztiak birrin zitzatela ANATEMA erabiliz esaten zien, hau da: hil egin behar zituzten ume, emakume eta gizon, eta halaber abere guztiak. Ez zegoen barkazorik. Beraz, Yahve, esan dugun bezala, gehienetan Jainko gudazale eta anker agertzen zaigu eta bere Herria aukeratu eta Santu bezala.

Huitziloptxli: Eguzkiaren Jain-

koa zen, hau da, Jainko sortzaile eta emankorra, baina baita gudaria ere. Aztekar herriak hasieran mertzenari ziren eta toltekarrek, beren aurrekoek, gudari menderagaitz eta ankerren ospea zuten.

9. Herri guztiak eskaintzen diete beren Jainkoei zerbait. Aztekar herriak konkistatzaile espainolak iristerakoan pertsonen bihotza eta odola eskaintzen zioten beren Jainko nagusiari, hark bizirik segi zezan. Hau izan da beti leporatu zaien “bekatua”.

Bekatuak alde batera utziz, kontutan hartu behar da ohitura hau herri honen historian nahikoa berria zela: Seigarren errege aztekarraren garaian hasi zen, eta bere arbaso zen toltekar herriak, Jainko berberari ez zion giza bizitza eskaintzen; loreak, tximeletak eta sugeak baizik.

Juduek aldarean abereak hiltzen zituzten eskaintza gisa eta haien odolez baretu nahi zuten Yahve Jainkoa.

10. Esan daiteke bestetik, ezinezkoa dela Biblia Santuak eskaintzen dituen datu zehatz eta opa-roak eta ahoz-aho jasotako nolahalako istorio mitologikoa konparatzea.

Bibliak idatziz halako antolakuntza sozial eta morala ematen baditu eta aztekar herriaren mitologiak ez, horrek ez du esan nahi azken hauek ez zutenik, zeren ongi frogatua bait dago espainolak Mundu Berrira (eta Tetxnotikan-era bereziki, aztekarren bihotzera) iritsitakoan harrিতa gelditu zirela haien antolakuntza eta jakinduriaz. Idazkera, marrazkien bidez adierazten zuten, kode matematikoak, egunak eta hilabeteak finkatzeko ere erabiliz.

Gizartea mailakaturik zegoen lanbideen arabera. Eraikuntza arkitektonikoen, ur kanalizatuen, aintzira baten erdian zegoen herri nagusia komunikatzeko erabiltzen zituzten zubiek eta galtzadek, Herri aurreratuak zirela erakusten zien.

Beraz, ikur hauen azalean gelditzen bagara, ez dugu ezer baliokorik kausituko, baina funtsean hain urruti dauden bi Herri hauek (beste askorekin gertatzen den bezala) beren Jainko, errito eta sinesmenekin, funtzio berberak edo antzerakoak betetzen dituztela erakusten digute eta azken batean edozein gizakiren beldur eta nahiak, bizilekuak eskaintzen dion inguruaz baldintzaturik daude. ■■■